

# e-learning



eman la zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

# Aurkibidea



Zer da e-learning?



Urrutiko irakaskuntzaren bilakaera



Modalitate mistoa: b-learning



E-learning sistema sustatzen duten faktoreak



E-learning sistemaren abantailak



E-learning sistemaren arazoak



Metodologia



E-learning ereduak



Tresnak



Irakaslearen/tutorearen ezaugarriak



Bibliografia eta estekak

eman ta zabal zazu




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

# Zer da e-learning?



**E-learning** edo ikaskuntza elektronikoa kanal elektronikoen bidezko (bereziki, Internet) urrutiko hezkuntza da. Sistema horretan, tresna informatikoak (oro har, prestakuntza plataformak) erabiltzen dira irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen euskarri gisa.



# Urrutiko irakaskuntzaren bilakaera



Korrespondentzia




Telekomunikazioa



Telematika



# Modalitate mistoa: b-learning



**b-learning** (blended learning) edo irakaskuntza erdipresentziala: urrutiko hezkuntza eta hezkuntza presentziala bateratzen ditu.

# e-learning sistema sustatzen duten faktoreak





# e-learning sistemaren abantailak

## Abantaila pertsonalak:

- **Ikasleen autonomia** beren ikaskuntza erritmoa zehazteko orduan
- **Just-in-time training:** prestakuntza behar den unean jasotzeko aukera, **birziklatzea eta etengabeko prestakuntza** ahalbidetuz
- **Konexio denboraren eta lekuaren malgutasuna**
- Bizitza pertsonala, lana eta hezkuntza **bateratzeko** aukera
- Sareko sistemak erabiltzeko **trebetasunen garapena**
- **Prestakuntza denbora murrizteko joera**
- **Kostuen murrizketa:** joan-etorrien, ostatuaren, material didaktikoen eta halakoen gastuak murrizteko edo ezabatzeko aukera





# e-learning sistemaren abantailak

## Abantaila teknikoak:

- **Hartzaileak** izan daitezkeen pertsonen kopurua areagotzen du
- Esperientzia pertsonaletan oinarritutako **ikaskuntza aktiboa** sustatzen du
- Tutorearekiko, ikasleen arteko eta eskuragarri dauden online baliabideekiko **elkarrekintza** ahalbidetzen du
- **Multimedia material desberdinak** nahastea eta etengabe eguneratzea ahalbidetzen du
- **Simulazio birtualeko** inguruneetan **praktikak** egiteko aukera eskaintzen du
- **Komunikazioak** eta **informazio bilaketak** azkarrago eta errazago egiteko aukera ematen du







# e-learning sistemaren eragozpenak

## Eragozpen pertsonalak:

- Prestakuntza tradizionaletik elektronikora **aldatzeko erresistentzia**
- **Irakasleek** edukien kudeaketan eta tutoretzetan **denbora eta lan gehiago** inbertitzea eskatzen du
- **Irakasle-ikasle ratioa egokia** izatea eskatzen du
- **Ikaskuntza autonomorako eta elkarlanerako** trebetasuna eduki behar da
- **Aukera** honek ez ditu nahitaez irakasleak eta eskola presentzialak ordeztu behar





# e-learning sistemaren eragozpenak

## Eskakizun teknikoak:

- Irakasleek eta ikasleek gutxieneko **gaitasun teknikoak** izan behar dituzte (eten digitala)
- Beharrezkoa da **Internetarako konexio azkarra** edukitzea
- **Telekomunikazioen gastua**
- Martxan jartzeko egitura eta antolaketa **baliabideak urriak** dira
- Behar bezala prestatutako **irakasle gutxi** daude
- **Esperientzia txikiagoa** dute sistema honen erabileran



# Metodologia

E-learning sistemak funtsezko bi alderdi barne hartzen ditu:

## PEDAGOGIKOA

Hezkuntza zientziei  
lotuta

## TEKNOLOGIKOA

Informazioaren eta  
komunikazioaren  
teknologiei lotuta



# Metodologia

## Dinamizazio elementuak:

### Ikastaroaren kalitate didaktikoa ahalik eta gehien zaintzea

- Edukien kalitatea kontrolatzea
- Ikasturtea behar bezala dimentsionatzea
- Estrategia didaktiko argi bat garatzea (errazenetik konplexuraino)

### Ikastaroaren kalitate teknikoa ahalik eta gehien zaintzea

- Diseinu grafikoa
- Produktuaren ergonomia

### Pertsona erabiltzaileak inplikatzeari

- Erronkak
- Entreenimendua


### Irakaslea/tutorea gainbegiratzea eta babestea

- Lanerako plana betetzen dela gainbegiratzea
- Irakasleen esku-hartzea ebaluatzea
- Tutoretza gastuak aztertzea



# Metodologia

Prestakuntza proiektu bakoitzak erabili beharreko metodologia zehaztu behar du, honako alderdi hauek aztertuta:



# Metodologia

Teleprestakuntzan, funtsezko bi ikuspegi metodologiko daude:  
tutoretzapeko autoprestakuntza eta eskola birtuala.

Tarteko aukerak ere badaude, prestakuntza jarduerako parte-hartzaileen arteko elkarrekintza eta komunikazio mailaren araberakoak:  
autoikaskuntzatik ikasleen arteko nahiz ikasle eta irakasleen arteko etengabeko elkarrekintzara arte.



# e-learning ereduak

## TUTORETZAPEKO AUTOPRESTAKUNTZA

- Ikasleen autoprestakuntzan oinarritzen da; ikasleek autoprestakuntzarako dokumentazioa jasotzen duten eta ariketak egiten dituzte (orohar, autoebaluazio bidezkoak)
- Tutoreen babesa dute eta zalantzak edo kontsultak bidal diezazkiekete (gehienetan posta elektronikoko bidez)
- Korrespondentzia bidezko irakaskuntzaren antzekoa da, baina teknologia berriak erabiliz

## ESKOLA BIRTUALA

- Bitarteko telematikoak erabiliz, parte-hartzaileen elkarrekintzaren bidez prestakuntza helburuak lortzean oinarritzen da
- Tutoreek irakasle/bitartekari zeregina dute; ikastaroa diseinatzen eta ematen dute, parte-hartzaileen arteko elkarrekintza zaintzen dute, komunikazioa ahalbidetzen dute eta taldeko jarduerak sustatzen dituzte
- Talde txikitan egiten da, prestakuntza presentzialak eskaintzen dituen motibatze elementuei eutsi ahal izateko

# e-learning ereduak

	TUTORETZAPEKO AUTOPRESTAKUNTZA	ESKOLA BIRTUALA
ABANTAILAK	<ul style="list-style-type: none"><li>•Tutoreek ikasle asko har ditzakete beren gain</li><li>•Banakako jarduerak</li><li>•Aurrera egiteko erritmoa zehazteko autonomia pertsonala</li><li>•Konektatzeko ordutegien eta lekuen malgutasuna</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>•Talde txikiak</li><li>•Taldeko jarduerak</li><li>•Elkarrekintza handia parte-hartzaileen artean</li><li>•Tutoretza maila altua, laneko erritmoa zehazten duena</li><li>•Eskolak uzten dituzten ikasleen kopurua prestakuntza presentzialekoaren antzekoa da</li></ul>
ERAGOZPENAK	<ul style="list-style-type: none"><li>•Ikasleek diziplina handia izan behar dute, ikaskuntza banakakoa baita</li><li>•Ikasleen artean harreman gutxi dago</li><li>•Ikasle gehiagok uzten dituzte eskolak bertan behera</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>•Denbora eta leku malgutasun gutxiago eskaintzen du</li><li>•Irakasleek lan gehiago egin behar dute</li></ul>





# Tresnak

Azken urteotan teleprestakuntzaren garapenerako beharrezko tresnak hobetu eta dibertsifikatu egin dira.

Zerbitzu gehiago eta hobeak sortu dira, eta arlo honetako hornitzaileak asko ugartu dira.

Garapen honi etekina ateratzeko, enpresa edo erakunde batek hau egin behar du:

- E-learning proiektua enpresaren edo erakundearen **prestakuntza estrategian** sartu.
- Ikasleei urrutiko prestakuntzarako sistemak erabiltzeko **euskarri egokia** eman.
- Prestakuntza ekintza bere osotasunean (beharren azterketa, diseinua eta garapena, eskolak ematea, segimendua eta ebaluazioa) eta ikasleei babesa emateko eskakizun teknologikoak diseinatzeko **aurrekontu egokiak** esleitu.

eman la zabal zazu




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO  
BIKANTASUN  
CAMPUSA

CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL

# Tresnak



Posta  
elektronikoa,  
web  
orrialdeak,  
foroak, blogak,  
etab.

Teleprestakuntza  
plataformak  
(aurreko  
aplikazioak barne  
hartzen dituzte)




# Tresnak

## E-learning plataformak (Learning Management System):

- Aplikazio informatiko horiek Internet edo Intranet bidez **prestakuntza ekintzak sortzeko, kudeatzeko eta zabaltzeko** erabiltzen dira.
- **Ikaskuntza-irakaskuntza inguruneak** sortzea ahalbidetzen dute; ingurune horiek material didaktikoak, komunikazio tresnak, lankidetzarako tresnak, hezkuntza kudeaketarako tresnak, etab. barne hartzen dituzte.
- **E-jarduerak** barne hartzen dituzte: jarduera praktikoak, autoegiaztapen jarduerak, irakurketa interesgarriak, web estekak, bideoak, etab.
- **Ebaluazioa** azterketen bidez egiten da, galdera mota desberdinak erabiliz eta banaka edo taldean egindako lanen betetze-maila eta kalitatea neurtuz.
- Komunikazioa, nagusiki, honako bide hauek erabiliz gauzatzen da: **posta elektronikoa** (asko erabiltzen da tutoretzatan), **foroa** (eztabaidak antolatzeko edo zalantzak modu partekatuan argitzeko), **txata** (denbora errealeko komunikazioa ahalbidetzen du) edo **bideokonferentzia**.
- Lankidetzarako tresnak barne hartzen dituzte, esaterako, gaikako **blogak** (post-ak eta iruzkinak argitaratzeko) edo **wikiak** (elkarlanean sortu eta edita daitezkeen webguneak).
- Unibertsitateko esparruan asko erabiltzen dira WebCT eta Moodle.



# Irakaslearen/tutorearen ezaugarriak



# Bibliografia eta estekak

- CABERO ALMENARA, Julio, Bases pedagógicas del e-learning, *Revista de Universidad y Sociedad del Conocimiento*, 3. lib. – 1. zk. / 2006ko apirila
- [http://es.wikipedia.org/wiki/Aprendizaje\\_electr%C3%B3nico](http://es.wikipedia.org/wiki/Aprendizaje_electr%C3%B3nico)
- <http://www.cfp.us.es/e-learning-definicion-y-caracteristicas>
- <http://www.e-abclearning.com/definicion-e-learning>

Etengabe aldatzen ari den gizarte  
garatu honetan, e-learning  
sistemak pertsona autonomoak,  
arduratsuak eta erronka  
akademikoei, lanekoei nahiz  
profesionalei aurre egiteko gai  
direnak prestatzen laguntzen du.

